

...eta kitto!

733 zkia. 2010-IX-24

ASTEKARIA

TOKIKOM



BERBETAN: euskeraz mundu berriak sortzen

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean





IRAZABAL

clínica dental


Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552




ANTONIO MURILLO doktorea

www.clinicairazabal.com



AINHOA ZULUETA doktorea

“Punta-puntako teknologiaz hornitu dugu klinika, bezeroaren erosotasuna helburu”




Zain egoteko harrera-gela erosoak.

Askorentzat ikasturtea hasten den honetan, Irazabal Hartz Klinikak ere bere ibilbidean aro berriari ekin dio, **KLINIKA GOITIK BEHERA ZAHARBERRITUTA.**


Beti ere **BEZEROEN EROSOTASUNA HELBURU**, funtzionaltasuna eta diseinua batu egin dituzte inauguratu berri duten klinikan.

Lehengo toki berean, Julian Etxeberria kalean, **AHOAREN ZAINKETA INTEGRALERAKO** behar diren tratamenduetarako punta-puntako teknologiarekin hornitu dute hartz klinika.


Betiko profesionalak osatzen duten lan-taldea, Antonio Murillo eta Ainhoa Zulueta dokto-reak buruan direla, **ODONTOLOGIA, AHO-KIRURGIA, PERIODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA** arlo-etako edozein premiari erantzuna emateko moduan aurkituko duzue **ITXURABERRITUTAKO IRAZABAL HORTZ KLINIKAN.**




Aho-tratamenduetarako teknologiarik aurreratuenak.



Pazienteen premiak asetzeko moduko tresneria berria ipini dute.



Zure eskura ipintzen dugu gure klinika eta konpromisorik gabeko aurrekontua egingo dizugu. Azkar elkar ikustea espero dugu.



Diseinua eta funtzionaltasuna bat eginik.

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kितto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARAGAZKIA:

Ainhoa Luz

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kितto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kितto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

GOGORTU.- Sendatu. "Izan eban gaitzan ondoren, oso gogortu zan".

GOGOR HARTU.- Norbaiti gogor egin, tratu txarra eman. "Gogor hartu dabe gurasuak, egin dittuan oker guztiak atara eraitzeko".

ESKUTITZAK

ANIAIZ GOÑIKO 2. TXANDARAI

- Manu Pirataaa!!! Manu Pirataaa!!! Aniaiz atxilotu dabe!

- Ani? Bigarren txandako begiralia? Txandara etortzeko desiatzen egoten dan hori? Lehelengo egunetik martxan gelditu barik ibiltzen dana? Umieri suabe-suabe danetik jan bihar dala azaltzen detsena? Bi koillaradaka gitxienez... Urtero-urtero, lehelengo urteko emozioño bardiñaz **Aupa aurten!** oihukatzen dabena??? Isillik geratu da, pentsakor eta, aurpegixan oroitziak eragitten detsan irribarriarekin batera, amorrua, tristuria eta kezkia igartzen jakoz.

- Noiz etorri zan lehelengoz... a, bai! Ume moduan ezagutu neban aurrena eta, bertan emondako udaldixak eziñ ahaztuta, begirale etortzia erabagi zeban. Bai, 16 urterekin agertu zan bigarren txandara begirale. Eta ordutik ez dau iñoiz kale egin. Zelan egingo zeban, ba, berak esaten daben moduan hamen egi bihurtzen da-eta amesten dogun **Euskal Herri euskalduna. Borondatez egindako alkarlanian, bakotzak dakixana erakusten eta bestiengandik ikasten. 15 egunez euskara hutsezko jardunian, danon artian prestatutako jolas, antzerki eta txanguez gozatzen... Horixe erakutsi desku urtietan: danok dakagula zeozter aportatzeko, txiki-txikixa bada be. Ondokuak prestatutakua errespetatu egin bihar dala eta, kritikak egittiaz gain, zorianak emoten be ikasi bihar dogula. Danon artian eztabaidatu eta prestatzen dirala txandak, urtian ziharreko lanak garrantzixa haundixa dakala gero udako egunak topera gozatzeko... Berriz isilatasuna, eta gogoratu Manu Pirata ez dala isillik geratzekua. Kezkatuta daguala diño: Zenbat egun dira? Eta ondiokan ez dakigu ezer? Zergaittik? Ez dakigu erantzunik, geuk be ez dakigu zergaittik ezin dogun jakin zelan daguan gure laguna. Derrepente barrezka hasi da, urduri...**

- Et, et, et! Baiña... txandarako bueltatuko da, ezta? Bestela, akabo: aurten bai lanak, zuek danok mendixan ez galtzeko... bera da bigarren txandako Xerpa! Kar, kar, kar... umoria ezin da iñoiz galdu... esan eta segiduan illundu jako aurpegixa.

- Lasai, Ani. Ama Lur, Katutxoa, Cow Boy... eta ni neu hamen egongo gara, zure zain, zukanako maittasuna ez deskue-eta lapurtuko. Eta, trankil, geuk zainduko doguz, zu bueltatzen zaran bittartian, bigarren txandako danak banan-banan, baiña goxotasun haundixenaz Naroa hartuko dogu gure kantu eta jolasen magalian. Kezkatuta juan da, urtietan bere ozeano bihurtu daben Andia mendizerrara, eta barriz galdetu dau: Zer moduz egongo da? Eta mendixan gora bere lagunak agertu dira: Mari, Lamia, Basajau eta Basandere, Katutxoa, Cow Boy... eta danak batera botatako oihua entzun da ozen: **Osasuna, maittasuna eta askatasuna!**

GOÑIKO UDALEKUKO BIGARRIN TXANDA

JON BARANGUAN-I ERANTZUNA

Irailaren 20an izandako ez-ohizko plenoan zinegotzi guztiei zuk jaurtitako irainak direla-eta, zera esan nahi dizut:

1. Aralarren jaiotzatik beti defenditu izan ditugu giza eskubideak guztiotzat. 2. Aniaiz eta besteen atxiloteten aurrean gauza berbera egin dugu. 3. Herri honen historia errespetatzea ez da zurekin hasten ezta amaitzen ere. Gutako zenbaitzuk ondo ezagutzen ditugu, besteak beste, tortura eta tratu txarrak jaso izan ditugulako. 4. Zuk plenoan esandakoak iragana ordezkatzeko dute: "Edo nirekin edo nire kontra". 5. Zurea moduko jarrerak zubi guztiak apurtzen ditu eta, indarrak batu orde, sakabanatu eta zaildu egiten ditu geure arteko harremanak. 6. Berez, presoak kartzeletatik ateratzea zaila izango bada ere, halako jarrekin urrundu egiten ditu helburuak lortzea.

Naiz eta jakin amorruren ondorioak direla esandakoak, ez ditugu inola ere onartu eta onartuko holako irainak eta jarrerak. Halere, Aralar-etik errespetuan oinarritutako elkarlana jarraituko dugu bultzatzen, orain arte egin dugun bezala.

MARIASUN GARTZIA (ARALAR-EKO ZINEGOTZIA)

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Genero indarkeriak egindako heriotza eta biktimia gehiago ez izateko hezkuntzara jo behar da. Ikerketa batean ikusi zen nola irakasle batzuek neskei %26 gutxiago hitz egiten zieten, nahiz eta irakasle horiek ez zuten hori nahia egiten. Agerikoa aldatu dugu, baina ohiturak aldatzea da erronka"

(Marina Subirats, Soziologiako katedraduna)

"Los pilares de la tierra" estreinatu dute telebistan, arrakasta handiz. Hala ere, lagun baten alabak telesail osoa ikusita zeukan, Interneten, hurrengo egunerako, eta orain ez da pantailaren aurrean egongo. Gazteek ezin dute arreta hamar minutu baino gehiago jarri; hori ere telebistaren errua izan da"

(Felix Linares, telebista aurkezlea)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

ARRATETAKO ZOZKETIA

Jaixak Herrixak Herrixandako taldiak Arraten egindako zozketan 2.856 eta 4.578 zenbakixak izan dira saridunak. Oindiok ez da irabazlerik agertu eta irabazliak aste biko epia eukiko dau Montekasino tabernan sarixa jasotzeko.

GABONETARAKO POSTUAK

Aurtengo Gabonetan salmenta postuak ipiñi nahi dituenendako eskaerak aurkezteko epia zabaldu dabe. Eskaeriak Pegoran aurkeztu biharko dira, abenduaren 3a baino lehen.

SALTZAILE IKASTARUA

Gipuzkoako Merkataritza Elkartek, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin elkarlanean, dendetan saltzaile izan nahi dabeneendako ikastarua antolatu dau langabetuendako (15 plaza). Ikastarua urriaren 5etik 28ra emongo dabe, Eibarko egoitzan (Untzaga, 7, Artola jatetxiaren aldamenian).

INFORMATIKA NAGUSIENTZAT


Urriaren 4an hasiko dira nagusientzat informatika ikastaroak, Biztutik adierazi dutenez. Hainbat maila eta gai jorratuko dira ikastaroetan eta interesatuek izena eman dezakete, Untzaga jubilatatu etxean.

ELAk Ayra Cardan-en jokaeria salatu dau

ELA SINDIKATUAK AURREKO BARIKUAN ESKINDUTAKO PRENTSAURREKUAN, Dana Spicer Ayra Cardan enpresa-ko zuzendaritzaren jokabidia salatu eben bihargiñak. Urtarrillian 46 lagun kaleratu zituen eta oin, sei hillabeteren bueltan, behin-behiñeko 40 kontrato barri egin bihar izan dittue, *“erdixa urte hasieran kalera botatako bihargiñeri”*. Sindikatuak salatzen dabenez, *“krisixaren aitzakixarekin bihargiñen lan baldintzen prekarizaziñorako estrategia”* erabili dabe. Izan be, kaleratutakuen artian 12 urte-rik gora biharrian ziharduenak eguzen eta kontrato barrixak ez dittu jasotzen lehengo kontratuak aitortzen zetsazen eskubidiak.



ELAko ordezkariak barixakuko agerraldixan. / SILVIA HERNANDEZ

**Arraten miradoria egiten**


JAIXAK PASAUTA, ARRATEKO GURUTZIA-REN INGURUAN BIHARRIAN HASITTA DAGOZ, Udalak onartutako proiektuari jarraituta bertan miradoria egitteko. Aspaldittik datorren asmuari helduta, Arraten ez eze Santa Kurutzen be egingo da begiratokixa, hango elizaren aldameneko parkian. Dana dala, krisixaren eragiñez hasieran aurreikusitta eguan aurrekontuan murrizketak egon dira.

Ikastolaren pausuen atzetik

JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLAK EDERTO OSPATU EBAN BERE MENDEURRENAREN inguruan zapaturako preparautako ekitaldi berezixa: asko izan ziran Eibarko mapia eskuan hartu eta ikastolak mende erdixan izan dittuan etxe ezberdiñak ezagutzeko ibilbidia egittera animau ziranak. Eguraldixa lagun, Iturburun musikia, herri kirolak eta jokuak izan ziran protagonista.

Errebal zozketa**ERREBALGO MERKATU PLAZAKO DENDARIXAK BEZERUEN**

ARTIAN erosketa-txartelak oparitzeko egindako azken zozketan jarraixan aittatzen dittugunak izan dira irabazliak: M^a Sol Hernández, Eli Muñozguren, Mari-bel del Río, Sebas Arriaga, Eurne Apolaza, Cristina Adrián, Chelo Rivera, Eli Escudero, Nora Otegi, Carmen Domeque, Pilar Gil eta Celso Gómez. Zorionak daneri!



aek
www.aek.org

**matrikula
zabalik**



Sostoa 1, 1. solairua

Telefona: 943 201 379

eibar@aek.org



Gartzia, Balentxi, Xumendi eta Toni II.a jantzi ziran zuriz ikuskizuna eskintzeko.
/ MAIALEN BELAUSTEGI



Arrate izenekoak, aurten frontoian be

URTEROKO MODUAN, ARRATE IZENENKO HAINBAT ANDRAK BAT EGIÑ EBEN IZEN BEREKO TOKIXAN, bertako jaixak pasau eta hurrengo asteburuan. Domekan ospatu eben jaialdixak 30 bat lagun erakarri zittuan: ohiturari jarraituta, euretako batzuk Untzagan alkartu eta oiñez igo ziran Arratera, autobusez edo automobilian igo ziranekin bat egituko. 12.30xetan mezia euki eben eta bazkarixa, barriz, Kantabria jatexian egin zan.

Baiña bixen tartian jokuetarako tartia be izan zan eta, gaiñera, hortxe egon zan barritasun nagusixa: gerriko gorrixa eta urdiña jantzitta, bikote bik pelotan jardun eben Arrateko frontoian, final haundixetan bezain beste-ko emozionua euki eban norgehiagokan. Xumendi eta Toni II.ak osatutako bikotiarentzat izan zan garaipena, Balentxi eta Gartziari alde txikixarekin irabazi bazetsen be (18-16). Edozelan be, eguraldixa lagun primeran pasau eben eguna.



DYA-ren jardunaldi arrakastatsua

EIBARKO DYA-K ANTOLATUTA, DOMEKAN HAINBAT EKITALDI EGIN ZITTUEN TXALTXA ZELAIXAN eta goizian zein arratsaldian jende mordua ibilli zan atzera eta aurrera; ausartenak gaztetxuak izan ziran, rokodromuan eta tirolinan pozarren ibilli ziran eta. Baiña begiratziaekin konformau ziranak be ederto ibilli ziran, kale animaziño, erakusketa eta erreskate simulakruak tartian zirala.

anzorik anzo



Agiñaga sanmigueletarako prest

Martitzenian, San Miguel bezperan hasiko dira sanmiguelak Agiñaga auzuan, 18.00etako kanpai iraulketa eta txupinazuarekin. Hurrengo egunerako Agiña Elkartekua preparau dittuen ekitaldixak auzoko San Miguel elizan ospatuko dan 11.00etako meza nagusixarekin abiatuko dira. Mezia Usartza Txistulari Bandakua lagunduko dabe, beste urte batzuetan egiñ izan dabenari jarraituta. Halanda be, auzokuak ez dittue jaixak hor agurtuko: hurrengo asteburuan, urriaren 2xan eta 3an jarraipena eukiko dabe sanmiguelak horretarako antolatutako ekitaldixeri esker. Zapatu arratsaldian briska txapelketiak eta umiendako jolasak izango dira protagonista nagusixak, herri-afarixa aillegau bittartian. Ondoren erromerixa eskinduko dabe Kupela taldekuak, suzko-erroberak apainduko daben zeruaren azpitan. Goizaldera arte aguantatzen dabenendako txokolata egongo da. Eta bixamonian Goruntz abesbatzak lagunduko daben meziarekin ekingo detse egunari. Mezia amaituta, Zerutxu dantz taldiaren emanaldixa hasiko da Gorriti be hantxe izango da bere animalixekin eta batutakuak piskolabisa hartzeko aukeria eukiko dabe. Bazkaltzeko, barriz, paella-jana egingo dabe eta arratsalderako idi probak antolatu dittue.

eibar kaleka

Ibargain kalia

Pagaegi igota, eskumatara daganu kaliari esaten detsagu Ibargain. Eibarko basarixen artian be topauko dogu Ibargain izeneko gaiñeko aittamenik: Mandiola baillarako basarri horren gaiñeko idatzirik zaharrena 1780kua da, ate gaiñian 1705 irakorri leikian arren, eta izen bereko dorretxiaren babesian jaixotako basarrixa da.

Pegora kopurua: 31.

Erroldatutakoak: 2.



asteko

47.273

datua

ibilgailuk erabili dabe Errebalgo aparkalekua, mediari begiratuta egunian 391 automobillek. Mediekin jarraitua, batzabeste 113 miñutuan egoten dira aparkauta ibilgailuak, ezarrita dagan gehixeneko mugatik oso gertu.

Udalbiltzaren inguruko pleno antzua

ASTELEHENIAN PLENO BE-REZIXA EGIN ZAN UDALIAN, Udalbiltzaren Eibarko Babes Taldiak bozkarako presentautako mozifuen inguruan. Aurretik elkarretaratzea egiñ eben hainbatek, udaletxe aurrian. Udalian ordezkatura dagozen alderdikak, baiña, ez eben moziño horren aldeko botorik emon, aldaketa batzuk sartuta modu bateratuan eurak aurkeztutako beste moziño baten inguruan baiño. Herritarreri berba egitite eskintzen jakuen tartiaz baliatuta hiru-lau lagunek berba egiñ eben, baiña eurak botatako galderak eta eskaeriak ez eben erantzunik jaso.

1.557 etorkin herrixan, azken datuen arabera

GURE HERRIKO UDAL ERROLDAN JASOTAKO DATUAK OIÑARRI, INMIGRAZIÑO ARLOKO ARDURADUNAK eguaztenian emon zittuen ezagutzera etorkiñen inguruko datu barrixak: erroldatutako 27.475 lagunetik 1.557 atzerritarrak dira (%5'66). Porzentajia EAEko mediatik (%6) gertu dago eta, "azken urtiotan atzerritar kopuruak apur bat gora egin badau be, gorabehera haundirik ez daguala" diñue. Edozelan be, estatu maillako porzentajiarekin konparauta (%12-13), hamengo atzerritar kopurua erdibidian geratzen da. Jatorrixari begira, oindiok be marokorak osatzen dabe talderik haundiña (500). Atzetik doiaz Portugal (144), Kolonia (130), Bolivia (109) eta Brasil (88).

Gizartekintza sailletik eskintzen detsazen zerbitzueri begira, batez be hiru gairen inguruko konsulta eta tramitiak bideratzen dittue: giza erro-



Gorka Errasti eta Benjamin Atutxa datuak aurkezten. / SILBIA HERNANDEZ

tzearen gaiñekuak, biharrerako permisuen barriztapenen ingurukuak eta famelixia atzera batzeko aukeriari buruzkuak. Urtia amaittu aurretik diagnostikua egingo dabe, 2011n Inmigrasiñuaren inguruko Eibarko bigarren plana idatzi ahal izateko eta liburutegixarekin batera aurten Bolivia ardatz izango daben Munduko Paisaiak programari helduko detsela aurreratu dabe.

Kulturalak atxiloketa eta miaketaren gaiñian

ARRATE KULTUR ELKARTEAK AGERRALDIXA EGIÑ EBAN EGUAZTENIAN, AURREKO ASTIAN GOARDIA ZIBILLAK EUREN BULEGUETAN egindako miaketaren eta bertako bihargiña dan Aniaz Ariznabarretaren atxiloketaren gaiñeko bere iritzixa azaltzeko. Aurreko asteko eguen illuntzian sartu zan Goardia Zibilla alkartiaren egoitza miatzera eta 5 ordu emon zittuen bertan. Miaketa amaituta, prezintua ipiñi eben atian eta oindiok be holan segitzen dau buleguak. Alkarteko ordezkariak ez dakixe poliziak bertatik zer hartu



Eguaztenian Arrate Kultur Elkartek egindako agerraldixa. / SILBIA HERNANDEZ

daben eta prezintuak ipiñitta segitzen daben bittartian ez dabe jakingo.

Agerraldixan irakorritako adierazpenak jasotzen dabenez, "Aniaz Ariznabarreta Ibarluzeak Arrate Kultur Elkarteko bazkide eta bihargin modura euskeriaren eta kulturaren alde egindako biharrira eredugarrixa izan da, alkartiaren helburuekin bat etorritta". Horrekin batera, alkartiaren jardueria osotasunian kultur arlokua dala gogora ekarri nahi izan dabe, "hedabidietan okerreko informaziñua zabaldu dalako".

Horrez gain, alkarteko ordezkariak gogor gaitzetsi zittuen Aniazek salatutako torturak eta berari eta ingurukeri alkartasuna agertu zetsen. Biharrian segitzeko dittuen zailtasunak ikusitta, Udalera jo dabe aste honetan bertan, laguntasun eske, baiña billera ostian "eurekin harremanetan ipiñiko dirala" beste erantzunik ez eben jaso. Babes billa herriko beste alkarte batzuetara be joko dabela azaldu eben agerraldixan. Bixen bittartian, "biharrerako sekula baiño gogo haundixaguarekin" segiduko dabe eta gaur bertan erakusketia inaugurauko dabe Topalekuan.

GATE

English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net


Aurreko astian proiektu berririk jarri eban funtzionamenduan Kataluniako instituto baten: ikasliak klasian sartzean eta urtetzerakuan fitxatzearena. Holan, pipar egiñ ezker, ikastetxetik abisua bialtzen detse gurasueri, sms bittartez, neurrixak hartu ahal izateko. Larregizko kontrola? Neurrikua begittantzen?

Zelan ikusten dozu ikastetxietako ikasliak fitxatzea?



IGOR ZABALA
36 urte
metalurgikua

Horrenbesteko kontrola ez jata ondo begittantzen. Arduratsuak izan bihar dira eta hori gurasuen gauzia da. SMS bittartez abisatzea be ez dot ondo ikusten. Hobe da irakaslearekin aurrez aurre egotia, billeran, eta hor arazoak eta konponbidiak topatzia.



Mª CARMEN MONTAÑA
36 urte
pensionistia


Ondo begittantzen jata; holan, gurasuok jakiñaren gaiñian ga-go. Ikasientzat ez da gauza ona izango, eta danerako moduan topauko leukie piper egitako modua, baiña guraso moduan pentsatzen, ondo ikusten dot.

RICARDO ANDRADE
37 urte
bihargiña



Fitxatzea ez jata ondo begittantzen. Arduratsuak ez badira, fitxatzeko txartela be galdu egingo leukie eta. SMS bittartez abisatzea ondo iristen jata, azkarra dalako eta holan gurasuak momentuan jakingo leukie euron seme-alaba ikastetxera juañ dan ala ez.

ANA FERNÁNDEZ
38 urte
etxeoandria



Tontokerixia begittantzen jata. Euron jokabidiaz arduradun izaten irakatsi bihar jakue. Abisatzeko moduari ez detsat garrantzirik emoten, oharra, sms-ia...

Lahidalga
zapata denda



TAILA ETA ZABALERA BEREZIAK:

- Emakumeetan, 33-46
- Gizonezkoetan, 39-52

Arragueta, 5

www.lahidalga.es

943-203991

unfema

burdindegia
ferreteria



BERRIRO BUELTAN GAITUZU

50 metro gorago,
Merkatu Plazaren aurrean

Bidebarrieta, 40
943 20 11 75

KALEAN EDO EDOZEIN TOKITAN ATERA DIDATEN ARGAZKIA KALERATZEN BADA, EZ DAUKAT INOLAKO ESKUBIDERIK ARGAZKI HORI EZ KALERATZEKO? ZENBATERAINO?

Konstituzioak eta Legediak pertsona ororen ohore, intimitate eta irudi eskubideak babestu egiten ditu. Babes horren barruan, desberdindu behar da argazkia non aterata dagoen, espazio publiko batean ala leku pribatu batean. Oro har, pertsona baten irudi eskubideak urratu egiten dira pertsona bati leku pribatu batean, edo une pribatu batean, argazki bat atera badiote eta hori argitaratzen bada pertsona horrek baimenik eman gabe. Beraz, argazkia leku publiko batean aterata badago, nahiz eta argazkian ateratzen den horren baimenik ez izan, ez da legerik urratzen, eta argitara daiteke.

Hala ere badaude salbuespen batzuk zeinetan pertsona horren baimenik gabe argitaratu ahal izango den, alegia: pertsona hori kargu publiko bat denean edo pertsona ezaguna denean, eta argazkia leku ireki batean aterata dagoenean. Eta baita gertakizun baten berri emateko ateratzen

denean ere argazkia, eta pertsona horren argazkia albistearen lagungarri huts denean.

Ostera, baimenik gabe leku publiko batean ateratako argazkiaren erabilera helburu komertzial batekin egingo balitz adibidez, pertsona horrek eskubidea izango luke argitalpen hori eteteko eskatzeko, eta bere irudia helburu horretarako ez erabiltzeko eskatzeko.



Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.



Elena Laka
abokatua

AITATASUNAREN PROBARI EZETZ ESANEZ GERO, ESKUBIDEAK GALTZEN DITUZU? ZENBATERAINO ZAUDE DERRIGORTUTA, EDO EZ ZAUDE?

Ama batek edo seme edo alaba batek gizon baten aurka demanda judizial bat jar dezake honen aitatasuna aitortu dadila eskatzeko. Demanda judizialarekin batera, froga batzuk aurkeztu behar dira egiaztatzen dutenak umea jaio zen garaian behintzat aita eta ama horrek harremana bazeukatela (lekukoak, argazkiak, elkarrekin bizi zireneko ziurtagiriak etab). Aitatasun froga deritzona (hau da, odola ateratzea DNAREN froga egiteko) beste froga bat da epailetan, baina oso garrantzitsua, fidagarritasun handia ematen baitu. Aitak eskubidea dauka froga hori ez egiteko, epailegiak hala eskatu badio ere. Izan ere froga gorpuzaren aurkako eraso bat da, eta ez dago hori jasatera behartuta. Gertatzen da, froga hori hain fidagarria izanda, oso susmagarri gertatzen dela aitak egin nahi ez izatea, zeren benetan aita ez bada, froga horrekin garbi geratuko litzateke. Orduan, beste froga batzuk badaude aita eta amaren arteko harremana frogatzen dutenak, eta aitak DNAREN analisia egin gabe ere, kasu askotan azkenean epaileak aitatasuna onartu du, eta erabaki du gizon hori erreklamazioa egiten duen horren aita dela.



Hi eta hire munduak bideoan



Uda eta oporrak atzean geratu dira eta berriz ere buruari eragiten hasteko sasoia ailegatu zaigu. Ideia eta proiektu berriei ekiteko urtaro egokian gaude eta, horrekin konturatuta, erronka interesgarria proposatu dute Gaztezulo aldizkarikoek, 10. urteurrenaren harira: "Hi eta hire munduak", Gaztezulo aldizkariaren lehenengo bideo lehiaketa.

16 urtetik gorako gazte-entzatzat pentsatutako lehiaketan, bideoek aipatu berri dugun esaldia ("Hi eta hire munduak") izango dute gaitzat; iraupenari dagokionez, gutxienez minutu bat eta

gehienez 3 minutuko iraupena izango dute lehiaketara aurkeztutako lanek. Bideo guztiak euskeraz landutakoak izan beharko dira.



Eusko Ikaskuntzak gazte sortzaileentzat tarte berezia dauka.



Parte hartu nahi dutenek urriaren 1etik azaroaren 15era bitarteko tartea izango dute lanak entregatzeko eta bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ditzake. Bideoak Euskaltube-ra edo Youtube-ra igo beharko di-

tuzte eta linka gaztezu-lo@gaztezulo.com-era bidali behar da, honako datu hauekin batera: parte-hartzaileen izen-abizenak, jaiotze-data, helbidea, ikasleak izanez gero non ari diren ikasten, eta telefonoa, bideoaren titulu eta deskribapenarekin batera. Bideo onenaren egileak 1.500 euroko saria jasoko du. Informazio gehiagorako Gaztezuloren webgunera jo daiteke.

Ei Gazte! Saria

Bestalde, Eusko Ikaskuntzak 2010. urteko Ei Gazte! Lehiaketa antolatu du, abenduaren 3an izaten den Euska-

raren Nazioarteko Eguna internet bidez ospatzeko ideia sortzaile eta originala saritzeko asmoarekin. Lehiaketarako gaia 1949an Eusko Ikaskuntzaren baitan sorturiko ekimena da: ENE, Euskararen Nazioarteko Egunaren akronimoa. Ideiak irailaren 30era arte aurkez daitezke, antolatzaileek ipinitako bete beharreko baldintzei jarrituta. Irabazleak 1.500 euro jasoko ditu dirutan eta beste horrenbeste emango diote bere ideia gauzatu dezan. Eusko Ikaskuntzaren Gazte Sortzaileak atalean eskuratu daiteke lehiaketaren inguruko informazio zabalagoa.



I R A I L A

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

U R R I A

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31


A Z A R O A

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairvartea
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com
www.etakitto.com



Egin zaitez
...eta kitto!ko
bazkide!


2010eko
udazkeneko
kulturr
eskaintza

...eta kitto! Euskara Elkarte

BERBETAN, euskera praktikatzeko SOLASALDIXAK

Datozen egunotan hasiko da Berbetan mintzapraktika egitasmua gure herrixan. Euskaldun barri edo ixa-euskalduneri euskera praktikatzeko aukeria eskintzen detsen programia oin dala 8 urte jaixo zan ...eta kitto! Euskara Elkartian eskutik eta herriko bi euskaltegixen babesarekin. Taldiak hasteko dagozenian, atiak edozein entzat zabalik dagozela azpimarratu dabe antolatzailliak: "Euskera ahalik eta aho gehixenetara heldu dein".

Hiru talde, 15 lagun. Holan ekin zetsan bere ibilbi-diari Berbetan egitasmuak. Azken 8 urtietan gora egin dau parte-hartziak, eta igaz, 5 taldetan banaturik, 35 lagunek jardun zebe. Hasierako helburu berarekin dihardu egitasmuak: "Hainbat arrazoi tarteko, lotsia, bildurra edo inguruan euskaldunik ez izatia, euskera praktikatzeko aukerarik ez dakeneri, horretarako espaziu eskaintzia da Berbetan-en helburua", diñue ...eta kitto! Euskara Elkartetik. Funtzionamendua be ez da aldatu: "Euskaldun zahar eta euskaldun barriz osatutako taldiak egitten dittugu, normalian parte-hartzaillien



ordutegixa eta zaletasunak kontutan izanik, eta talde horrek astian behiñ alkartzen dira, ordubete-ordu eta erdi inguru, eurrek nahi daben lekuan". Modu natural eta informalian euskera



lazkuari jarraituta, aurtan be tribial txapelketia antolatuko da taldien artian. / ANHQA LUZ

Aurtan be euskaldun zaharren premiñan dago Berbetan programia. Denpora gitxi eskinduta, euskaldunak euskaldun barrixerri emoten detsena haundixa da.

erabiltzia da xedea: "Ez dogu iñor engaiñatuko. Astian ordubetian euskeraz jardutiak ez dau esan nahi euskera ehunetik ehunera ikasiko dabenik, horretarako dagoz euskaltegixak, baiña erabillixan erabillixaz,

parte-hartzailliak asko aurrertzen dabe, euskeraz egitteko ohitturia hartzen dabe".

Euskaldun zaharren laguntza

Euskaldunen parte-hartzia ezinbestekua da egitasmua aurrera eruateko, eurak diralako euskaldun barrixak daken erreferentzia taldietan. Beti be "irakasle" figura alde batera lagata, euskeraz egitten laguntzia da euskaldun zaharren betebiharra. Arrate Berrizbeitiak 5. urtia beteko dau egitasmuan euskaldun zahar moduan: "Euskaldun barrixerri laguntzeko asmuakin



IRAILA

Irailak 7, martitzena
Arrateko bertso afaria Kantabriar 21.00etan. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Anoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Julio Soto.

Irailak 8, eguaztana
Kittonbolia. 10.00etan hasita Arrateko eliza parean.

Irailak 29, eguaztana
Berbetan. Mintzapraktika egitasmuaren aurkezpena. Deporren, 19.00etan.

URRIA

Urriak 1, barixakua
San Andres Bertso Paper lehiaketarako lanak entregatzeko epea zabaldu.

Urriak 1etik 15era
Makrobiotika ikastaroan izena emateko epea.
Urriak 2, zapatua
Sagardo Eguna 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 21.00etara. Untzagan.



Urriak 3, domeka
Kilometroak-era (Pasaia-Lezo) autobusak joan eta etorri.

Urriak 6, eguaztana
Harixa Emoten literatura tertulia. Fermin Etxegoien "Autokarabana" liburua. ...eta kitto!, 19.00etan.

Urriak 19, 21, 26 eta 28
Makrobiotika ikastaroa. Simone Begiristain-en eskutik, Portaleko sukaldean. Talde mugatuak. 10€ (Berebalagun eta bazkideentzat doan).


Urriak 17, domeka
Nafarroa Oinez-era (Atarrabia) autobusak joan eta etorri.

Urriak 23, zapatua
...eta kitto!-ren **Bazkide Jaixa.**



AZAROA

Azaroak 5, barixakua
San Andres Bertso Paper lehiaketarako lanak entregatzeko azken eguna.



Azaroak 17, eguaztana
Illunabarrian "El conquistador del fin del mundo", **Jose Luis Korta** eta **Urko Aristi** ...eta kitto!-n, 19.00etan.

Azaroak 26, barixakua
San Andres Bertso jaialdia eta Bertso Paper lehiaketako sari banaketa.

...eta horrez gain:

- Barixakua ...eta kitto! astekaria
- Hilerio Txikito! aldizkaria on-line
- Astero Berbetan mintzapraktika taldeak
- Itzulpenak eta diseinu lanak
- www.etakitto.com



Artolarekin egindako sukaldaritza ikastaruak arrakasta haundixa euki eban. / MAIDER ARANBERRI

sartu nintzan taldian. Oso pozgarria da, lehelengo urtian ixa barbarik egitten ez zebana denporiakin zelan soltau dan ikustia, satisfakziño haundixa

emoten desku". Urtero gertatzen dan lez, euskaldun barrixak euskaldun zaharrak baiño gehixago dira, eta horrek zailtasunak ekartzen ditu taldiak

osatzeko orduan. Horregaitik Arratek euskaldun zaharrak animau egin nahi ditu: "Gure aportaziñua oso inportantia da euskaldun barrixentzat, astian ez desku denpora askorik eskatzen, baiña eurek jasotzen dabena haundixa da".

Julia Carballo euskaldun barrixarentzat 2. urtia izango da aurtengua. Umia zala Galiziatik Euskal Herrira etorritta, segiduan sartu jakon euskeria ikasteko gogua: "Hizkuntzak betidanik gustau izan jataz, baiña euskeria lehelengo bidar entzun nebanian, zeozer berezixa sentidu neban". Denporiakin jaria pixkat galdu zebala-ta, Berbetan-en izena emotia pen-


tsau zeban: "Gaztelerara errazago jotzen nebanez, hori aldatzia pentsatu neban, eta horretan asko lagundu desta Berbetan-ek. Oiñ errazago egitten dot euskeraz". Euskaldun barrixentzako berbak be badittu Juliak: "Etorri daittezela, euskeraz berba egittiaz gain, ondo pasako dabe-eta!".

Hainbat ekintza urtian zihar

Astian behiñ alkartziaz gainñera, bestelako ekintzak be izaten dittue Berbetan-eko ki-diak. "Hainbat ikastaro antolatu dittugu; urrian adibidez, makrobiotikari buruzkoa eukiko dogu, eta aurretik danetarik egiñ izan dogu, gozogintza eta abalorio ikastaruak, bestiak beste", diñue ...eta kitto!-tik. Ikasturte amaieran eskursiño bat be egitten dabe, iaz Ekainberrin izan ziran, eta ekaiñian Euskal Herriko mintzapraktikako taldien arteko topaketara juaten dira, Mintza Egunera.

Aukerak, beraz, ez dira gutxi, miña dantzan jarri eta euskeraz jarduteko. Izena emotia nahi dabenak ...eta kitto!-ra deittu baiño ez dau egin bihar: 943200918 (Maidar).

Makrobiotika gertutik ezagutzen





Simone Begiristaiñen eskutik Makrobiotika ikastaruan Berbetan-ekuak ez eze, nahi daben guztiak be parte hartu ahal izango dabe. Urrian 19, 21, 26 eta 28xan Portaleko sukaldian izango da horretarako aukeria. Simonen esanetan, makrobiotikak, "berbiak berak bizitza ona eta luzia, kalidadezkua esan nahi dau. Gehixenbat ekialdian landu dan jateko modu bat da, naturakin bat egiñez bizitzeko modua". Makrobiotikak ez ei

dau elikagairik baztertzen, baizik eta "oreka billatzen dau, pertsonia, urtarua, lanbidia... kontutan hartuta modu orekatuan jatia". Halan da be badittu oiñarri-oiñarriko elikagaixak: "Zerealak, lekaliak, barazkixak, fruitu lehorrak, frutia eta arraiñ zurixa, beste batzuen artian". Makrobiotikan bittartez zer lortu daben be argi daka Simonek: "Burua argitzia, serenidadia eta indarra". Ikastaruan izen-ematia urrian 1ian hasi eta 15ian amaittuko da.

Eibarko erdi aldera etorri gara

TEL. 943 702024



martitzenetik
barixakura
09.00~19.00
zapatuetan
08.00~13.00



EGUERDIETAN
EZ DUGU IXTEN

EN boga
ESTILISTAK

Ifar kale, 6
San Andres Parrokiaren aurrean

GREMIOEN GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

ANTENAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 55 55

Aroztegia □ Ebanisteria
□ Obra aroztegia

C **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko atekak, armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

AROTZAK

ulmar
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA BANTERUA
ARREGLATUAK
BERRIKOTZEMAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD
I B A S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioa
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

• Barne apainketak
• Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar- ROSARIO 15 -Elgoibar-
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

GARBIKETAK

escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

CRISTALUX
Limpieza

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08
Mobila:
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

**TREJO
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



irazabal
INDUSTRIALIAK, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

www.irazabal.net

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03

SARRAILAGINTZA



GILTZAK

Era guztietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak eta segurtasun-kutxak
askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea

ITURGINTZA



INDA iturgintza

UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**



• Nexa
Autocolor

• Pintura
industrialia

• 3M
produktuen
banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



Pintura
Goi mailako
dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

II. BTT martxa urriaren 12an

URRIAREN 5-EAN AMAITUKO DA BTT MARTXA HORRETAKO BIGARREN EDIZIO-RAKO IZENA EMATEKO EPEA. www.debarrenaturis.com helbidean eman daiteke, federatuek 12 euro ordainduta eta beste guztiek 15. Martxa era guztietako zaleendako da eta parte-hartzaile guztiek

kamiseta jasoko dute opari. Ibilbide bi izango dira aukeran: 25 kilometro izango dituen laburrago bat eta 45eko beste bat eta biak Elgoibarko Mintxeta kirolgunean dagoen BTT Zentroaren harrera puntuan izango dute bai irteera (09.00-etan) eta baita amaiera ere. Iaz 225 parte-hartzaile izan ziren.



Dianakoak nagusi eskualdeko ehiza txapelketan

ZAMBRANAKO GAZTELUKO ESPARRUAN JOKATU ZEN TXAKURRAREKIN EGINDAKO EHIZA TXIKIKO Debabarrenako txapelketan, eskualdeko ehiztari onenak izan ziren eta, denen artean, Dianakoek ikaragarriko nagusitasuna erakutsi zuten, seniorretan zein nagusietan irabaziz. Bie-

tan, gainera, Gisasolatarrak izan ziren onenak: Iñigo zortzi eperrekin gailendu zen bere mailan eta Jose Luis bere aitak zazpirekin irabazi zuen edadetuena lehia. Maila bietako bigarren postuak ere Eibarko Isasitarrentzat izan ziren: Enrique eta Juan Manuelentzat, hurrenez hurren.



Kiroljokoaren berrikuntzak Madrilen

MADRILEN GAUR AMAITUKO DEN FER-INTERAZAR NAZIOARTEKO AZOKAN AURKEZTU DITU Kiroljokoa Eibarko enpresak Kirolsoft izeneko bere azken berrikuntzen

teknologia. Gaur egun 70 lagunekoko plantila du eta Eibartik zortzi apustu-etxe, tabernetako 500 apustu-makina eta jokoretoko 20tik gora apustu-eremu kudeatzen ditu.



Bihar, 16.15etan, hiru pilota partidu kiroldegian

GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO JARDUNALDI BERRIA JOKATUKO DA bihar arratsaldean Ipurua kiroldegiko frontoian. Hasteko, kadete mailan Ruiz-Larrauri Deportiboko bikoteak Alegiakoari egingo dio aurre; jarraian, Agirresarobe-Erik Alde Zaharreko ordezkariari egingo die aurre jubenil mailakoan; eta, amaitzeko, Egaña-Bengoetxea senior mailako bikoteak Tolosako binakakoa izango du aurrez-aurre, garrantzi handiko norgehiagokan.

Bihurri aizkolariaren marka berria Azkoitiko plazan

ERNESTO EZPELETA EIBARKO AIZKOLARIA SASOI BETEAN JARRAITZEN DU eta, horrela, Azkoitiko plazan zapatuan emandako erakustaldian, 3,5 metroko luze-zabalerako enborra mozteko ordu-bete baino gutxiagoko lana egin zuen. Bertan entzundako apostuetan "ordubete eta laurdenetik jaitsiko zen" zalantzan jartzen bazen ere, 56 minutu eta 39 segundo behar izan zituen Bihurrik lana amaitzeko.

KATU

KALE

BIDEBARRIETA, 1

TABERNA

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Eibarrek kostata irabazi zion Sporting B-ri

ALTUNAK 80. MINUTUAN LORTUTAKO GOL BATI ESKER eskuratu zuen Javier Mandiolaren taldeak eguaztenean Ipuruan jokatutako hiru puntuak. Atsedendian binako berdinketarekin joan ziren

aldageletara talde biak eta 2. zati borrokatuan lortu zuten eibartarrek garaipena. Albistegik eta Soutok sartu zituzten beste bi golak. Eibartarrak Alavés liderrarengandik puntu bakarrera jarraitzen dute.

Txirrindularitza Elkartekoen omenaldia



AURREKO ZAPATUAN TXIRRINDULARITZA ELKARTEKO ZUZENDARITZAKOEK RAMON ARIZAGA omendu zuten, azken 25 urteetan klub horretako zuzendaritza taldeko partaide izan delako. Argazkian, Sakan omenaldian parte hartu zutenak.



Arizaga omendua erdian, txapelarekin dotore.
/ ANTON GUTIERREZ

Txirrinduzaleen egun handia

URTERO LEGEZ, URKIZUKO ITURRIAN ELKARTZEN DEN TXIRRINDUZALEEN TALDEAK urteroko irteera egin zuten. Kostaldeko ibilaldia bete eta gero, Arraten amaitu zuten egun horretako bizikletaren gaineko egitekoa; ondoren, euren emazte eta seme-alabekin Azitain erretegia bazkaldu zuten.



C. Createch-en debuta domekan

ORIOKO KARELA KANTXAN JOKATUKO DU ARETO-FOBALLEKO TALDEAK denboraldiko lehenengo partidua. Igotzeko asmoarekin osatutako taldeak hiru fitxaketa egin ditu denboraldi berrirako: Ruben González "Montxi" golea-tzailea eta modalitate horretako Gipuzkoako jokalaria

onenetakoa, Igor Zabalo probintziako atezainik nabarmenetakoa eta Richard Barreira, azken hau eibartarra, eta atzeko hegal postuan jokatzeko duena.

Aurrendenboraldiko partiduetan, bestalde, Ibarako triangularra irabazteaz gain, Zierbenarekin partidu bat irabazi du eta bestea galdu.

J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkartea / ...eta kitto! Euskara Elkartea

KILOMETROAK
Pasaia-Lezon
Urriaren 3an

Irteera
09.00etan -EgoGain-
Itzulera
19.00etan
8 euro

txartelak ...eta kitto!-n

AUTOBUSA **DAKAGU!!!**

- altzariak.
- menajea.
- bainurako osagarriak.
- ehungintza.
- argiztapena.
- opari pertsonalak.
- osagarriak.
- 100 m²ko autozerbitzua

dKora eibar
Isasi, 18 943 53 12 59

Lambretta Klubak antolatuta, "100% Tricycle" ikuskizunaren emanaldi bikoitza eskainiko du Clownic taldeak, Tricycle-ren bigarren konpainiak. Jaume Ortanobas aktoreak, Eduard Méndez eta Xevi Casals lagun dituela, munduko edozein txokotan barre algarak lehertaraztea lortzen duen ikuskizunean ikusiko dugu bihar.



JAUME ORTANOBAS, aktorea:

"Barreari eutsi ezinda egoten dira ikusleak"

- Nolako ikuskizunarekin zatozte?

Keinuetan oinarritutako ikuskizuna da eta ikuslea barreari eutsi ezinda egongo dela aurreratu dezakegu. Gu Clownic gara, Tricycle taldeak berak zuzentzen duen bere bigarren konpainia eta Tricycle-ren historian egon diren sketch onenekin osatutako ikuskizuna da gurea. Bestalde, 10 minutuko sketchak izanda, oso erritmo bizia dabilgu.

- "10 segunduoro barre algar bat", hori agintzen duzue. Ez da apostu arrisku-suegia barrea eragitea horren garesti saltzen den honetan?

Agian bai, baina harritzen lehenak gu geu izan ginen. Ikuskizuna eskaintzen hasi eta jendea barreari eutsi ezinda egoten zela ikusten hasi ginen, eta horrela jarraitzen dugu. Emanaldi bakoi-tzaren amaieran jendea gerturatu egiten zaigu, zeinen

ondo pasatu duen esatera eta hori gauza handia da, euren berbekin benetan poztzen gaituzte.

- Horrenbeste algara artean, nola egiten duzue zuek ez kutsatzeko?

Kontzentrazio handia behar izaten dugu, hori hala da, eta inoiz gertatu zaigu ezustekoren bat izan eta guri ere barrigura sartzea, baina hori saihesteko ahalegina egiten dugu beti.

- Munduko oso herrialde ezberdinetan ibiltzen zarete. Bereziki zaila egin zaizuen publikorik topatu duzue?

Sinesteko gaitza da, baina urte eta erdian mundu osoan ibili ondoren toki guztietan barre egin du jendeak, baita "hotzak" izateko ospea duten herrialdeetan ere. Aurreko astean, adibidez, Sirian ibili gara eta bertako kazetari batek esan zigun lehen aldia zela hango ikusleak horrenbeste barre egiten ikusten zituela.



Mexikoren independentziaren bigarren mendeurrena ospatzen

2001-AZ GEROZTIK, URTERO IRAILAREN 15A HELTZEAN EIBARREN ETA INGURUAN BIZI DIREN MEXIKANOEK euren herriaren independentziaren urteurrena ospatzen dute. Aurten ere horrela egin dute, baina oraingoan ospakizuna handiagoa izan da. Izan ere, Hidalgo abadeak Dolores herrian Mexikoren independentziaren aldeko deia-darra egin zuenetik berrehun

urte bete dira. Hori gogoan, aurreko zapatuan Denon Sahatsa soziedadean izan zen ospakizuna. Beste urteetan bazkaria edo afaria izaten da, baina oraingoan, jaja berezia zenez, biak egin zituzten: bazkaria eta afaria. Umore giro onean, kantuan eta ondo jan eta edanez egun ederra pasatu zuten hainbat mexikarrek eta euskaldunek. Viva México!!!



Eibartarrak "Faborez" bilduman

JON ANSORREGI ETA ANDER ETA AINTZANE AGIRREBEÑA TRIKITILARI EIBARTARREN MUSIKAREKIN GOZATZEKO AUKERA eskaintzen du "Faborez" bildumaren laugarren aleak. Eibartarrekin batera beste trikitilari batzuek hartu dute parte grabazioan eta diskoaren aurkezpen erromeria irailaren 12an egin zuten Bergaran, San Martin plazan. Aurreko lanen ildoari jarraitzen dion lan honetan pieza tradizionalak entzun daitezke eta nahi duenak diskoa erosteko aukera dauka, besteak beste, Elkar-en webgunean edo ohiko salmenta tokietan.

Azoka Untzagan domekara arte

ZAPOREEI ETA ARTISAU-TZARI ESKAINITAKO AZOKA BEREZIA ZABALDU ZUTEN ATZO UNTZAGAN ETA DOMEKARA ARTE ZABALIK EGONGO DA, goizez 10.00-etatik 14.30etara eta arratsaldez 17.00etatik 22.00etara. Plazan ipini dituzten 26 postuetan hainbat tokitako produktuak erosteko aukera eskaintzen dute. Besteak beste Errioxa, Nafarroa eta Galiziako elikagai tipikoak daude salgai, artisautzarekin batera (egurrezko irudiak, bitxiak, olibondo egurrez egindako lanak, narrua...). Gastronomiari eskainitako atalak garrantzi handia dauka azo-



Muntaia lanak eguaztenean hasi ziren Untzagan. / SILBIA HERNANDEZ

kan eta, horren harira, zapatuan 13.30etatik aurrera baba degustazioa eskainiko diote gerturatzen den jendeari (donan), Galiziako olagarroa dasta-

tzeke aukerarik ez da faltan izango eta domeka arratsaldean, berriz, 17.00etatik aurrera diskotekarekin girotuko dute azoka eta inguruak.

Barrenak ere jaiak ospatuko ditu


BESTE AUZO BATZUEN ADIBIDEARI JARRAITUTA, BARRENA KALEKOEK ERE EUREN JAIK OSPATUKO dituzte, biharko antolatutako dituzten hainbat ekitaldirekin: bihar goizean paella



lehiaketa jokatu da Barrenako parkean (gasolindegia parean). Izen-ematea Gurekaiola eta Bodega Vinagre tabernetan egin daiteke, lehiaketaren aurretik. Bikoteka jokatu den txapelketa 12.30etan hasiko da eta bakoitzak beharko dituen gauzak etxetik eraman beharko ditu. 14.00etan epaimahaiak erabakiko du sariak zeinentzat izango diren (1. saria txuleta kilo bi eta garaikurra, 2. saria txanpan botila bi eta 3. saria ardo botila bi) eta ondoren herri-bazkaria egingo dute paellekin. Bazkariak 10 euro balio du helduentzat eta 5 euro umeentzat. Horrez gain, arratsaldean mus txapelketa jokatu da 16.30etatik aurrera.

Argazki erakusketak tabernetan

JOSE LUIS IRIGOIEN KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKO KIDEAK argazki erakusketa zabaldu du El Ambigú kafetegian. Irailaren 30era arte zabalik egongo da eta Egipton hartutako irudiek osatzen dute irudi sorta. Bestalde, Klub Deportiboaren tabernan "Rincones de Bizkaia" izenburuko argazki bilduma izango da ikusgai, hilaren amaiera arte.



Zapatuko ipuina bueltan

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK BIHAR ARRATSALDEAN, 18.00-ETAN HARTUKO DUEN IPUINKONTALARI saioarekin Zapatuko Ipuina programa bueltan izango da eta, beraz, aurrerantzean hil bakoitzaren azken zapatuan umeendako emanaldi berezia hartuko du liburutegiak. Bihar "Erreka Mari" izenburuko lana eskainiko du Txotxongilo Taldeak, 3 eta 10 urte bitarteko umeentzat aproposa den antzezlan.

laburrak

KILOMETROAK-ERAKO AUTOBUSA

Urriaren 3an Pasaia-Lezon ospatuko den Kilometroak jaira joateko autobusak antolatutako dituzte ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Juan Antonio Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarteak. Txartelak 8 eurotan ipini dira salgai, ...eta kitto!-ren bulegoan (Urkizu, 11 solairuartea).

SAGARDO EGUNA

Urriaren 2rako ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen diharduen Sagardo Egunean lagundu nahi duenak elkarteko arduradunekin harremanetan ipintzeko aukera dauka zuzenean bulegotik pasatuta (Urkizu, 11 solairuartea), elkarte@etakitto.com helbidera idatzita edo, bestela, 943206776 telefonora deituta.

BITXI ERAKUSKETA TOPALEKUAN

Gaur 19.00etan zabalduko dute erakusketa Marta Irusta eibartarraren bitxiekin Topalekuan. Urriaren 3ra arte ikusgai izango dira bitxiak, ohiko ordutegian: astegunetan, 19.30etatik 21.00etara eta asteburuetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.30etatik 21.00etara.

BAROJA COLLET

Juan Luis Baroja Collet artistaren erakusketa hartuko du Gasteizko Felisa Navarro aretoak (Cercas Bajas, 2) irailaren 28tik aurrera (inaugurazioa 19.30etan). Artista eibartarraren grabatuak martitzenetik zapatara egongo dira ikusgai, 17.30etatik 20.30etara.

Euskaltegiak, ikasturteari heltzeko prest

Udal Euskaltegiak ikasturtearen aurkezpena egin du eguaztenean, matrikulazio kanpaina martxan dagoela aprobetxatuta. Portalea eraikeinean euskaltegiak duen egoitzan bertako arduradunek azaldu zuten, "Eibarko Udal Euskaltegiak 26 urte daramatza eskolak ematen eta Gipuzkoako beste 16 Udal Euskaltegirekin batera, 21 herritan sare zabala osatzen du".

Aurtengo matrikulazio kanpainarako aukeratu duten leloa "Udal Euskaltegiak, euskara ikasteko bide zuzena" da eta matrikula egiteko epea gaur amaitzen bada ere, "epe horretatik

kanpora ere euskaltegiko ateari nahi duenarentzat zabalik egongo direla" gogora ekarri zuten. Izan ere, urtean birritan egiten dira matrikulaziorako kanpainak euskaltegietan, "baina hortik kanpora ere eman daiteke izena". Eskaintzari dagokionez, maila guztiak ematen dituztela gogoratu nahi izan zuten eta, ordutegiari dagokionez, "goizeko 08.00-etan hasita 21.00ak arte" klaseak egoten direla azaldu zuten, ikasleei ahalik eta erreztasun gehien emateko asmoari jarraituta. Astean 10 ordu izaten dira eskolak, "ordu bi egun bakoitzean eta, horrez gain, klasea amaitu eta jarraian ordu erdiko tutoretzak es-



Udal Euskaltegiko ordezkariak eguaztenean aurkeztu zuten aurtengo kanpaina. / SILBIA HERNANDEZ

kaintzen dizkiegu ikasleei, euren premiei hobeto erantzun ahal izateko". Matrikula ordaintzeko orduan erreztasunak eta diru-laguntzak eskaintzen dituzte.


Eta AEK Euskaltegiak ere martxan dauka matrikulazioa. Kasu honetan ere ikastaro zein ordutegiaren eskaintza zabala da eta kanpainarako leloan herritarrei honako proposamena egiten die, ezkontzetako esaldia gogoan: "Euskara? Bai, nahi dut". Martitzenean itxiko dute matrikulazioa.

Kontseiluaren kanpaina

Bestalde, "Euskaraz bizi nahi dut" aldarrikapenarekin jarraituz, euskara ikasteko deia egin du Kontseiluak aste honetan bertan egindako agerraldian. Horren harira bideoa ere prestatu dute, idatziz ez ezik ikusentzunezko ere baliatuta kanpaina ezagutzera emateko asmoarekin: "Oraingoan ere spot bat prestatu dugu jendea animatzeko. Jakinarazi nahi diegu euskara ikastea ez dela ona guretzat bakarrik, euskara ikasten badugu jende askok eskertuko digula, bereziki gure inguru hurbilekoek. Ikasi euskara zuregatik, zure ingurukoengatik. Bidaia kolektibo baten partaide sentitzea baino gauza handiagorik ez dago".




Kontseiluak hainbat lagunen babesa jaso du abiatu berri den ekimenean.



laguinda

ARROPAK eta OSAGARRIAK



San Agustin, 3
943 20 84 41

EGOITZA NAGUSIA
Bilberrizte 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errozketa laber

Egoiberran (Signo poligonoan)

Partikular, malko eta aseguru etxei zerbitzua

Koroak - Eskelak - Uteurrenako eskelak


Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen dituzten Nazio eta Nazioarteko traxlogiak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa laber


TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, UNAI, domekan lau urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, LAIA, gaur hiru urte betetzen dozuz-eta. Zoriontsu eta primeran pasauko dogu. Zure famelixia.



Zorionak, KEPA, domekan zazpi urte egingo dozuzelako. Aitaxo, amatxo eta etxekuen partez.



Zorionak, PAULE eta MADDI, urtiak bete dozuez-eta. Aitaxo, amatxo eta Xabierren partez.

JAIOAKOAK

- Martina Gutiérrez De Lemos. 2010-IX-12.
- Amir Znagui. 2010-IX-14.
- Shara Valencia Ruiz. 2010-IX-14.
- Alex Beorlegi González. 2010-IX-14.
- Maiaten Uribe Elexpuru. 2010-IX-18.

HILDAKOAK

- Faustino Carretero Carretero. 78 urte. 2010-VII-27.
- Esteban Barroso García. 79 urte. 2010-IX-13.
- Aniceto Sevilla León. 88 urte. 2010-IX-16.
- Pedro Lizarralde Azpiri. 96 urte. 2010-IX-17.
- M^a Elena Guruzeta Aranburu. 67 urte. 2010-IX-18.
- Begoña Gómez Martínez. 56 urte. 2010-IX-19.
- Fernando Errekalde Olabarri. 89 urte. 2010-IX-21.
- Pedro M^a Anitua Astigarraga. 71 urte. 2010-IX-21.

Zinea Coliseora bueltan

GAUR BERTAN HASIKO DIRA OHIZKO ZINEMA PROGRAMAZIOAREN

barruko emanaldiak eskaintzen Coliseoan, hiru filmerekin: "Centurión", "Origen" eta "Avatar" aukeratu dituzte denboraldiari ekiteko eta, gainera, atzo egindako aurkezpenean azaldutakoari jarraituz, bada berritasunik: antzokiko emanaldietan 3D formatuko saioak eskainiko dituzte horretarako aukera ematen duten pelikulen kasuan. Sarrerak 5'50 euroko prezioa izango du saio arruntetan, 4'50 eurokoa ikuslearen egunean eta 3D-koen kasuan 7'50 kobratuko dute.

AGUR AMAÑAKOARI


Bestalde, Pedro Celaya Kultur Elkarteak aditzera eman duenez, 32 urtez pelikulak ematen jardun ondoren, aurrerantzean ez dute zine emanaldirik eskainiko Amañako aretoan. Horretarako arrazoa, aretoko jabea den parrokiako arduradunekin izandako bileretan akordiorik lortu ez izana da.

zinea Coliseoan

24an, 22.30etan; 25ean, 19.00 / 22.30etan; 26an, 20.00etan; 27an, 20.30etan.

"Centurión"


Zuzendaria: Neil Marshall
Aktoreak: David Legeno, Lian Cunningham, David Morrissey, Olga Kurylenko



Quintus Dias-en historia kontatzen du. Pictish-ak erromatarren gotorleku bati egindako erasoan bizirik irten zen bakarra izanik, IX. legioarekin Eskoziako ohianetan Pictish-ak eta Gorlacon hauen liderra akabatzeke agindua jasoko du.

"Origen"


Zuzendaria: Christop. Nolan
Aktoreak: Cillian Murphy, Ellen Page, Ken Watanabe, Leonardo DiCaprio



Besteen ametsetan sartzeko aukera ematen duen mundu batean, Cobb exekutiboak, besteen buruan ilegalki sartuta, informazioaz jabetzen da. Cobb-ek ez du bakarrik lan egiten: Arthur-ek, Eames-ek eta Ariadnek osatzen dute laukote berezia.

"Avatar"

Zuzendaria: James Cameron
Aktoreak: Giovanni Ribisi, Laz Alonso, Sigourney Weaver, Michelle Rodríguez




Jake gerrako veterano paraplejikoa Pandora planetara bidaltzen dute txotxongilo bati konektatuta, Na'vi arrazakoen artean infiltratzeko, Helburua da gizakiak nahi duten mineralen meategia non aurkitzen den jakitea. Emakume bat ezagutuko du.

BEGOÑA GÓMEZ

2010eko irailaren 19an hil zen

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

ZURE LAGUNAK: MARI CARMEN, BEGOÑA U., JULI, PILI, ANA, ESTHER, ARRI, VEGA, GEMA, PUERTO, ARRATE, ELENA, MAITE S., ROSA ETA PILI ARANBARRI.



horoskopoa

ARIES

Aurreko asteburuan zeozer laga zenuen zintzilik persona batekin. Bihar egun aproposa izan daiteke horri beste buelta bat emateko.

TAURUS

Zure bihotzean baten bat tok-tok egiten ari da. Ez izan beldurrik eta zabaldu zure bihotzeko ateak; gero izango duzu damutzeko astirik.

GEMINI

Lasai, pozik eta energiak beteta zaude Gemini. Baikor zabilta eta ingurukoak kutsatzen dituzula ematen du. Segi horrela!

CANCER

Ahula zarela ematen badu ere, burua hotz izateko gaitasun handia duzu eta horrek asko lagunduko dizu oraingo egoeraren aurrean.

LEO

Batzuetan norberari tokatzen zaio "fitxa" mugitzea. Nahi duzun hori lortzea nahi baduzu pausotxoren bat eman beharko zenuke.

VIRGO

Mmmm... Despiste horiek, irribarre ximple hori... Maiteminduta zaude! Nork esango zizun Cupidoren gezi hori zure bihotzean sartuko zenik?

LIBRA

Ikasturte hasiera gogorra, ezta? Lasai, apurka-apurka egoera berrira ohitu eta hobeto sentituko zara. Itxaropenik ez galdu!

SCORPIUS

Aspaldi ezaquatu zenuen persona bat agertuko da berriz ere zure bizitzan. Naturaltasunez jokatu eta laga denborari erabakitzen.

SAGITTARIUS

Aurreko asteburuko ajea eguaztanean kendu eta gero; gaur emazioz etseden gorputzari eta baztertu parrandarako asmoak.

CAPRICORNIUS

Osasun aldetik ahul samar zabilta eta garbiago jatea komeni zaizu. Saiatu bizimodu lasaiagoa eramaten eta gehiago lo egiten.

AQUARIUS

Lagun lasaia eta zentzuduna izaten zara, baina azken aldian ez dago zure aldamenian egoterik: dena da keja eta purrustada.

PISCIS


Larregi eskatzen diozu zure bururari eta horrek ez dizu lagatzen zoriotsua izaten. Errealistagoa izan beharko zenuke.

Barixakua 24**HITZALDIA**

19.00.- "Conocer la enfermedad de Parkinson y a Deparkel". Hizlaria: Javier Ruiz Martínez. Kultur Elkartearen (Ostolaza kalea). Deba.

KONTZERTUA

20.30.- "Mikel Gaztelurrutia & The New Jazz Voices Ensemble" jazz kontzertua. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

**Domeka 26****KONTZERTUA**

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

ZAPOREEN AZOKA

17.00/22.00.- Diskoteka mugikorra. Zaporeen eta Artisautza Azokan (Untzagan).

**Martitzena 28****AGINAGAKO JAIK**


18.00.- Kanpai iraulketa eta txupinazoa. Aginagan.

Eguaztena 29**AGINAGAKO JAIK**

11.00.- Meza nagusia abesbatzak eta Usartza txistulari Bandak lagunduta.

12.00.- Luncha eta umeendako jolasak.

14.00.- Lagunarteko bazkaria, Usartza txistulari bandarekin.

**Zapatua 25****BARRENAKO JAIK**

12.30.- Barrenako Jaietako I. Paella Lehiaketa.

14.00.- Epaimahaiaren aurrean paellak aurkeztea.

14.30.- Sari banaketa eta herri-bazkaria.

Barrenako parkean (gasolindegia-aren parean).

16.30.- Mus Txapelketa. Gure Kaiola eta Bodega Vinagre tabernetan.

ZAPOREEN AZOKA



13.30.- Baba degustazioa (doan). Zaporeen eta Artisautza Azokan (Untzagan).

ZAPATUKO IPUINA


18.00.- "Erreka Mari", Txotxongilo taldearen eskutik. Umeen Liburutegian.

ANTZERKIA

20.00 eta 22.30.- "100% Tricycle", Clownic konpainiaren eskutik. Coliseoan.


**Eguena 30****JARDUNALDIA**

15.00.- "Enpresa transmisioa eta ekimena merkataritza sektorean". Debegesan.



erakusketak

- Irailaren 30era arte
"RINCONES DE VIZCAYA" argazki erakusketa.
 Klub Deportiboaren tabernan.
- **"EGIPTO"** Jose Luis Irigoien-en argazki erakusketa. El Ambigú tabernan.
- Urriaren 3ra arte
MARTA IRUSTA-ren bitxi erakusketa.
 Topalekuan.
- Urriaren 12ra arte
"FERNANDO BEORLEGI: Gogoaren pintzelkada garratzak". Portalean.



lehiaketak

- **Asier Errasti Eibarko XI. laburmetraia jaialdia.**
 Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran.
 Informazioa: www.planocorto.es, www.eibar.net
- **Indalezio Ojanguren XXIII. argazki lehiaketa.**
 Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran.
- **"Sanandresak 2010 Eibarren" kartel lehiaketa.**
 Lanak aurkeztea: Urriaren 19ra arte, Pegoran.

farmaziak

- 24, barixakua**
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
 GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)
- 25, zapatua**
 EGUNEZ Las Heras (Sostotarren, 10)
 GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 26, domeka**
 EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 27, astelehena**
 EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
 GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 28, martitzena**
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
 GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 29, eguaztena**
 EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- 30, eguena**
 EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
 GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- 1, barixakua**
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
 GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

diru-laguntzak

- **Umeak Eskolara.**
 Eskeraur aurkeztea eta informazioa:
 Abenduaren 1era arte, Pegoran.
- **Diru-laguntzak ikasleei.**
 Eskeraur aurkeztea eta informazioa:
 Abenduaren 1era arte, Pegoran.

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63


autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

		3				7		
	7			4	6			
	6		1				8	
	4		6					
	5		9	7	8			2
						2		9
		9			3			4
			7	2				1
		6				5		

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Barrera kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Kalefakzioa eta igogailua. Altua eta eguzkitsua. Berriztua eta jantzitua. Tel. 678-287400.
- Pisua salgai Legarren. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. 24.500.000 pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai Saratsuegin. Logela bi. Ganbara eta garaje plaza bi. 3. pisua. Argitsua. Berria, sartzeko moduan. Tel. 647-720831.
- Buhardila dotorea alokagai (erosteko aukera). Prezio interesgarria. 5. pisua, igogailurik gabe. Tel. 626-144098.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 130 m². 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. Igogailuarekin. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 659-037882.
- Gela eskaintzen da alokairuan. Tel. 610-607610.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 693-950032.
- Pisua alokagai Bustindui-tarren kalean (Amañan). 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 615-707140.
- Pisua alokagai Iparragirre kalean. Gela bi, egongela, sukaldea, komuna eta terraza handia. Altzariekin. Tel. 687-090955.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 688-811385.
- Gela alokagai Legarren (Eibarko erdi aldetik gertu). Kalefakzioa eta wi-fi. 275 euro, gastuak barne. Tel. 620-633434.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Scooter CSR 125 motorra salgai. 3 urtekoa. 800 euro. Tel. 630-810099 eta 617-099029.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Barrera kalean. 18 metro eta erdi. Garajes Garcia eraikinean. Tel. 686-333014.
- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukaldea eta komunarekin. Tel. 669-293427.

3.2. Errentan

- Kontsulta alokatzen dut astero hiru egunetan. Tel. 639-748114. M^a Jesus.
- Garajea alokagai San Andres pasealekuan. Tel. 943-120308. Pili.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 660-073781.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 648-603029.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska eskaintzen da etxea garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-752142.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 686-234612.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 659-037882.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko: tabernetan, pegoretan, pisuetan... Tel. 610-607610.
- Mutila eskaintzen da nagusiak (gizonezkoak) zaintzeko gauzez. Tel. 686-545884.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzailer moduan. Esperientzia. Tel. 655-384877.
- Gizona eskaintzen da soldatzaile lanak egiteko. Tel. 693-950032.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara egiteko eta nagusiak zaintzeko. Arratsaldez edo gauzez. Tel. 630-365137.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizetan umeak zaindu eta eskolara eramateko. Tel. 646-369330.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 679-910991.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 652-446228.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 645-719725.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 639-020180.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da pisuak edo bulegoak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 660-593523. M^a Karmen.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, banatzaile moduan eta garbiketara egiteko. Autoarekin. Tel. 671-368324.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 636-284019.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 697-255458 eta 617-151688.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako: umeak edo nagusiak zaindu... Tel. 669-688755.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 659-213249.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko arratsaldez. Tel. 696-509360.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 648-514535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita ospitaleetan ere. Tel. 669-311385.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere) eta garbiketara egiteko. Tel. 656-493864.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Externa. Tel. 638-049409.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Klinika-laguntzaile tituluararekin. Tel. 646-384681.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 638-047847.
- Neska eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 682-188248.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara egiteko. Tel. 662-423898.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara egiteko. Tel. 662-471270.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketara lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 685-715805. Isabel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari moduan. Tel. 626-946905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari moduan. Tel. 690-134485.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 617-727744.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 686-234612.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 675-007271.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Orduka. Tel. 680-223378.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Orduka eta interna. Tel. 656-493864.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketara egiteko eta kamarera moduan. Tel. 657-142376.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 628-014327.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, pegorak garbitzeko etabar. Tel. 689-617818.
- Mutila eskaintzen da sukaldari edo biltegiko laguntzaile moduan, tornon zein fresadoran jarduteko etabar. Tel. 646-260220.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko gauzez eta asteburuetan eta garbiketara egiteko. Tel. 646-821678.
- Mutila eskaintzen da baserrian laguntzeko, tabernan jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-077316.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko eta dendan jarduteko. Tel. 630-410724.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 669-966611.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 629-994385.

4.2. Langile bila

- UGAN Klubak aerobic monitorrea behar du. Kurrikuluma bidali F. Calbetón, 21-era edo ugan.klub@euskalnet.net helbidera.
- Taxi lizentzia transferitzen da, jubilaria dela-eta. Tel. 693-937373.
- Emakume euskalduna behar da umeak eskolara eramane eta etxeko lanak egiteko. Ordutegiak: 07.45-11.15. Tel. 610-603631.
- Neska euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 616-801304.
- Kamarera/0 behar da Eibarko tabernan. Esperientziarekin. Tel. 615-759199.
- Magisteritza graduatutako unibertsitari behar da akademia batean laguntza-klaaseak emateko. Tel. 652-763264. centrobar@gmail.com
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. Deitu bulego orduetan. Tel. 943-744584.
- Pintorea behar da, 2. mailako ofiziala edo aprendizia. Tel. 660-522587.
- Neska behar da etxeko lanetarako. Tel. 943-203838.
- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-743249.
- Ontziak garbitzeko norbait behar da asteburuetarako. Autoa beharrezkoa. Tel. 679-950907.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Ordenagailua salgai. Apple i Mac 24". 320 MB. Urte eta erdiko. Egoera oso onean. 850 euro. Tel. 663-522433.
- Irailaren 26an U-2k Donostian emango duen kontzerturako sarrera bi salgai. 168,5 euro bakoitza. Tokirik onenean. Tel. 656-768944.
- Ohe artikulatua salgai. la berria. Tel. 666-062285. Rosa.
- Edozein sehaskatarako egokitutako umea aldatzeko salgai. 40 euro. Tel. 626-144098.
- Bebe-konfort kotxe-kapazoa, aukitxoa eta maxi-cosia salgai. Oso merke. Fundak (zakua) eta burbuilak opari. Tel. 617-256466.

6.2. Eman

- Eibarko emakume batek lagunak nahiko lituzke paseatzera, zinera joateko etabar. Tel. 669-911573 eta 943-701642.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Katakumea oparitzen da. Pertsonekin jolastera ohituta. Tel. 665-034269.

6.4. Bestelakoak

- Eibarko emakume batek lagunak nahiko lituzke paseatzera, zinera joateko etabar. Tel. 669-911573 eta 943-701642.



*Instalazioak nahi duzunean eta
nahi bezain beste erabiltzeko aukera*



UGAN KLUB

Fermin Calbetón, 21

EIBAR

943 82 04 52

ugan.klub@euskalnet.net



**FITNESS
SPINNING
AEROBIC
PILATES...**

**IGERILEKUA
ETA SAUNA
BARNE**

**dena
51,50 €**



UR JARDUERAK:

haurrentzat, igeriketa, psikomotrizitatea...



...eta ALAITASUNA!!